

## **GIZONAREN ETA HERRITARREN ESKUBIDEEN ADIERAZPENA**

*Gizonaren eta herritarren eskubideen adierazpena* titulua duen adierazpen hau 1789. urtean, Frantziako Biltzar Nazionalak sortutako adierazpena da. Testuinguru historikoari dagokionez, Frantziako Iraultzaren eta horrek sortarazi zuen absolutisten kontrako mugimenduen aroan aurkitzen da dokumentu hau. Izaeraren aldetik juridikoa da artikulua dituelako, eta hartzailea publikoa da, Frantziako biztanleria osoari zuzendua dago. Lehen aipatu bezala, Biltzar Nazionalaren eskutik sinatua dago eta adierazpen honen helburua da 1791an argitaratutako konstituzioaren aurrekari bat izatea eta jendeak artikulua batzuk argitaratu direla jakitea.

Adierazpen honetan, gizonaren eta herritarren eskubideak helarazten dira 17 eskubide, edo kasu honetan, artikuluen bitartez. Eskubide hauen bitartez pertsonaren figura beste era batera ikusten hasia zen helburua eta atzean utzi nahi zen Erregeak mende askotan zehar lortutako inposaketa.

17 artikulua garrantzitsuak izan arren, urte batzuk geroxeagoko konstituzioan oinarritutako bi artikulua aipatu behar dira bereziki. 10 artikulua dio inor ez del xaxatu behar bere iritziengatik, nolaz eta iritzi horien agerpenak legeak ezarritako ordena publikoa nahasten ez badute. Bestetik, 11. artikulua, pentsamenduen eta iritzien komunikazio askea gizonaren eskubide preziatuenetakoa dela dio eta ondorioz, herritar orok libreki hitz egin, idatzi eta argitara dezake; askatasun honekin egin ditzakeen gehiegikerien arduradun izanik legeak araututako kasuetan.

Testuinguru historikoari erreparatzen diogunean, XVIII. mendeko iraultza liberalen testuinguruan kokatu behar gara. Gizon askea, arrazionala eta liberala bilatzeko asmoarekin antzinako erregimenak ezartzen zituen legeak eta erregearen sistema absolutismoarekin, non erregea zen legea, akabatze ahaleginak egin ziren. Frantziako iraultza eredu argiena izan arren, mundu osoan aurkitzen diren beste mugimenduak adierazgarriak izan ziren aro berri batekin hasteko.

Honek eragin izugarria izan zuen sozietatean, baina baita ere hedabideetan eta komunikazio munduan. Antzinako erregimenak ezartzen zuen kontrolak desagertzen joan ziren eta inprenta askatasuna, eduki askatasuna... jorratzen joan zen.

Guzti hau aldaketaren medio izan zen. Jendeak sinisten hasi zen etorkizun berri batean eta aldaketa izatea posible zela, horren adibide aurkitu ziren kultura, arte eta zientzia garapenak eta bereziki konstituzioen agerpena. Konstituzioa, herritarren eskubide eta betebeharrak zehazten dituen dokumentua da eta horrelako dokumentutan oinarritzen hasi ziren herrialdeetan.

Britainia Handian, prentsa oso aktiboa zen. Joera elitistarekin jarraitzen zen gehienetan baina beste joera batzuetako egunkari eta aldizkariak agertzen joan ziren, herrikoia zirenak. Erregeak inposatzen zituen lege eta zergekin amaitzen da eta beste zerga sistema bat, 1712an sortutako Stamp Act, agertuko da. Zerga mota honek, ale bakoitzeko, publizitatearekiko eta orriarekiko zergak izango zituen. Garai honetan The

Observer (lehenengo igandekaria) eta Times (oso prestigiosoa) egunkariak izan zuten arrakasta Britainian.

AEBtara bidaiatzen dugunean, independentzia gerra aurkitzen dugu eta horrek eragindakoa. Britainia Handiko kolonien aurkako gerra ostean 1787ko konstituzioa eratu zen mugimendu liberalari dokumentu ofiziala ezarriz. Garai honetan bi motatako prentsa aurkitu zezakeen batek AEBn. Batetik, independentista joera zuena, The Boston gazette eta Common Sense (panfleto itxura). Eta, bestetik, lealista, The Boston News Letter, erregeak irakurtzen zuena.

Liberalismoaren inposaketaren eredurik nabarmenena Frantziak eman zuen 1789ko iraultzarekin. Iruzkintzen ari garen adierazpena izan zen horren berri izan zen lehenengo dokumentu ofiziala, urte batzuk geroxeago jorratuko zen Konstituzioa prestatzeko helburuarekin. Lehen aipatu bezala, adierazpen honetako 10 eta 11. artikulua oinarritzat hartuak daude Frantziako konstituzioan, bi eskubide horiek adierazten dutelako askatasuna eta aldaketa liberala.

Espaniara, nahiz eta beranduago heldu, 1812ko La Pepa konstituzioa dugu eredugarri. Absolutismoarekin akabatzeko ahaleginak izugarriak izan ziren mende hasiera horretan Espainiako herrialdearentzat eta horren adibide dugu komunikazio eta prentsa esparrua. Inprenta askatasuna jorratu zen, antzinako erregimenaren lege eta zentsuren debekua ezarri zen eta joera politikoa zuen prentsa idazten hasi zen. Normala zenez, bi ideologia defendatzen zituzten egunkariak zeuden. Batetik, liberalak, El Zurriago, La Abeja Española eta El Semanario Patriótico. Eta, bestetik, El Censor General absolutista.

*Gizonaren eta herritarren eskubideen adierazpena* testuak garrantzi izugarria du haren testuingu historikoaren arabera. Aipatutako mugimendu liberalen ondoriozko lehenengo konstituzioek erregeak inposatzen zuen aro baten apurketa ekarri zuten eta herritarraren askatasun, eskubide eta betebeharrak inposatu zituen. Horrexegatik da hain garrantzitsua dokumentu hau, eredugarria den Frantziako iraultzaren ondorengoko lehen dokumentu ofiziala izan zelako, hain famatua den 1791ko konstituzioaren aurretikoa.

### **3.GAIA AEB KONSTITUZIOA**

Amerikako Estatu Batuen Konstituzioa deituriko testu hau 1787-1791 urteen bitartean idatzi zen dokumentua da. Izaera juridikoa du konstituzio guztien moduan artikulua dituelako eta publikoa, gainera, herriari zuzendua doalako; kasu honetan, AEBko herriari. Egile kolektiboa dugun arren, elite politikoek idatzi zutelako testua, George Washingtonen, Estatu Batuetako Presidentearen, izendapean argitaratu zen.

Konstituzioak duen xedea AEBko biztanleriari lege batzuk batzen dituen dokumentu juridiko bat atera dela ohartaraztea da. Testu honetan hainbat artikulua aurkitu ditzakegu baina batzuk oso esanguratsuak dira.

Lehen artikulua bide legegileari buruz hitz egiten du eta bost ataletan banatu egiten da. Lehenengo atalean, botere legegile guztia dokumentu honetan oinarrituko dela azaltzen du eta bai senatua zein ordezkari ganbarak botere legegilea osatuko dutela dio. Bigarren atalean, ordezkari ganbara barruan parte hartuko dutenen betebeharrak adierazten dira. Bestetik, hirugarren atalean, senatuaren parte hartzaileak zer nolako eginkizunak bete behar dituzten esaten da. Laugarren eta bosgarren atalak, hauteskundeetan zentratzen dira, hau da, kide hauen aukeraketa eran.

Bigarren artikuluan, botere betearazlea Estatu Batuetako presidentearen esku jarriko dela dio eta lau urteko epealdia izango du. Bestetik, hirugarren artikulua, botere judizialari egiten dio erreferentzia esanez epaitegi goren baten esku jarriko dela. Eta zazpigarren artikulua dioen moduan, bederatzi estatuen konbentzioen berrespena eskuratzen bada konstituzio hau indarrean jarriko dela adierazten du.

Baina konstituzio honek berezitasun bat du, bi urte dituela. Lehenengo konstituzioa 1787an idatzi zen eta lau urte geroxeago, 1791an zuzenketak egin zitzaizkion. Bereziki, aurretik aipatu ditugun artikuluei.

Lehenengo artikulua esanetan, kongresuak ez du inolako legerik egingo erlijio eta prentsa askatasuna debekatzeko. Bigarren artikuluan, armada baten beharri eta armak edukitzearen eskubidea jorratzen da. Hirugarrenak, militarren eskubideak defendatzen ditu eta laugarrenak biztanleriaren eskubideak ez apurtzeari buruz hitz egiten du.

Bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren artikuluek egoera kriminal eta epailetzari buruzko betebeharrak berriei buruz hitz egiten dute. Eta azkenik bederatzigarrenak dio konstituzioak zenbait eskubide banan-banan aipatzeak ez du esan nahi herriak dituen beste batzuk ukatzen dituenik.

Konstituzio honen sorrera, datan ikusi dezakegunez, 1787 (lehenengoa) eta 1791 (zuzenketa) iraultza liberalen eta adierazpen askatasunaren garaian aurkitzen da. Absolutismoaren aurkako mugimendua eratzen hasi zen aldaketa posiblea zela ikusiz eta horren adibide aurkitu ziren Iraultza Loraitua (1689), Hamairu Kolonien Independentzia (1787, konstituzioarekin finkatu egin zena), Iraultza Frantzesak (1789, esanguratsugarriena) eta urte batzuk geroxeago 1812ko La Pepa konstituzioaren agerpena.

Konstituzioa herritarren eskubide eta betebeharrak zehazten dituen dokumentua da, gizon berdinen arteko paktua egiten duena, lege batzuen bidez sinatua. Honekin, adierazpen askatasunaren onarpena agertzen joango zen eta herriaren garapena ekarriko zuen, absolutismoa garaiaren aurka.

Britainia Handian prentsa garai hau oso aktiboa izan zen eta zergak agertzen joan ziren. Elitarentzako prentsa egiten jarraitzen zuten oraindik eta bi egunkari xebleenak The Times eta The Observer izan ziren. 1712an Stamp Act zerga sistema inposatu zen herrialdean non hiru zerga ezarri ziren (tinbrea, publizitatea eta paperarena).

Beste alde batetik, konstituzioaren aurreko garaian, independentzia gerran zehar, AEB-n bi motatako egunkariak aurkitu zitekeen. Batetik, lealistak, The Boston Letter eta, bestetik, independentistak, The Boston Gazette eta Common Sense.

Frantzia mugimendu liberalak izugarritzko inpaktua izan zuen eta horren adierazle ikusi daiteke iraultzaren ostean osatu zuten konstituzioan agertzen diren 10 eta 11. artikulua diotena. Lehenak zioen inor ez dela xaxatu behar haren ideologia, kultura edo erlijio pentsamenduengatik, askatasuna duela edozer pentsatzeko. Eta 11. artikulua dio herritar orok libre direla hitz egin, idatzi eta argitaratzeko. Hau da, prentsa askatasunari buruz hitz egiten du eta pentsamendu askatasunari buruz baita ere.

Espanian, beranduago eratu zen liberalismoa. 1812. urterarte ez zen heldu baina inpaktu nabaria izan zuen. La Pepa konstituzioaren ondorioz, inprenta askatasuna, absolutismoarekin zegoen zentsuraren bukaera eta prentsa politikoaren hasiera eman zen. Oraindik ere, logikoa zenez, bi ideologiak defendatzen zituzten egunkariak zeuden. Adibidez, El Semanario Patriótico eta La Abeja Española liberalak eta El Censor General absolutista.

1789-1791 bitarteko Amerikako Estatu Batuetako Konstituzioak garai historikoari begira izugarritzko garrantzia izan zuen antzinako erregimena eta absolutismoa alde batera uzten hasi zen lehenetariko testua delako eta beste mugimendu liberalekin batera adierazpen askatasuna bermatzen hasi zen garaia izan zelako.

## **5.GAIA: DOKTOREA**

Aurrean iruzkintzen hasiko garen ilustrazio hau Puck aldizkari umoretsu eta satiriko Estatubatuarren aleetako azala da. 1898. urtean publikatua izan zen irudi hau testuinguruari begira, Kubako Independentzia gerrarekin erlazionatzen dugu.

Irudian, azken koloniaren galerak sortarazitako Espainiaren dekadentzia ikusi dezakegu emakume gaixoa errepresentatuz. Bestetik, Erdi Aroko ideia eta metodo atzerakoi eta tradizionalak jarraitzen dituen sendagilea aurkitzen dugu; eta atzekaldean, ezagutza eta aurrerapen zientifikoa ordezkatzeko duen gizon dotore bat dago.

Puck aldizkariak, metafora honen bitartez, egoera hau kritikatu eta Espainiari dei egiten ari zaio. Espainiak haren etorkizuna Erdi Aroko ideia arazotzuetan jartzen ari da, zientziak ekartzen dituen aurrerapenen aurrean, eta horrek herrialde gaixoa krisi sakon eta dekadentzian sartzea eragingo du. Horrexegatik, aldizkariak "A change of doctors the only thing that will save her" hitzen bitartez Espainia hartzen ari den bidea kritikatu du.

Egoera hau, Kubako Independentzia gerraren porrotaren ondorioz eman zen, non AEBk haren prentsa sentsazionalistarekin batera, izugarriko garrantzia izan zuen.

Testuinguru historikoari erreparatuta, Sezezio gerraren ondorioz eta bigarren industria iraultzak ekarritako berrikuntzek (trenbide sarea, telefonoa, irratia, zinema...) komunikazio esparrua izugarri eraldatu zuen Ipar Ameriketara eta munduko erreferente bilakatu zen. Nekazal guneetatik hirietara emigratu zuen zibilizazioak eta horrek ekarri zuena soldatapeko bizimoduaren hazkundea eta masen mobilizazioa izan zen. Honek eragin zuen kazetaritza negozio izaera hartzen joatea erredakzio handiak eta ofizinak sortuz, emakumeen presentzia agertuz eta lan taldeak eratuz.

Mugimendu honekin, prentsa popularraren bigarren eta hirugarren belaunaldietan, Estatu Batuetan bereziki, masen artean inpaktu izugarria izan zuen prentsa sentsazionalista garatu zen, eta horren adibide argienak Pulitzer eta Hearst izan ziren. Hearstek bideratutako kazetaritza horia izan zen Espainiaren dekadentzia ekarri zuen faktoreetariko bat, orain azalduko duguna, hain zuzen ere.

### **Pulitzer en caso de alargarnos o no**

William R Hearst, prentsa popularraren urrezko aroan (80 eta 90. hamarkadak) parte hartu zuen kazetari esanguratsuenetarikoa izan zen. San Francisco Examinerrekin hasi bazen ere, 1895ean The New York Journalerako egunkariaren zuzendaria bilakatu zen. Titulu deigarriak, manipulazioa, espekulazioak, kritika erasokorrak, oldarkortasuna... lantzen zituen haren albisteetan dirua irabazteko helburuarekin. Hori zen kazetaritza horiaren ezaugarrietako bat, eta Hearst mende amaierako erreferente bilakatu zen horretan.

Garai horretan, Pulitzerrekin batera (non etsaitasun profesional izugarria zuten) prentsaren munduko erreferente bilakatu zuen AEB, eta horrek eragin zuena izan zen irakurle kantitate mardoa eskuratzerakoan. Urte horietan gehien irakurtzen ziren albisteak, Hearstek plazaratutako ideia sentsazionalistak ziren eta garrantzi handia izan zuten Espainiari gerra deklaratzeko orduan.

Estatu Batuetako prentsa izan zen Espainiaren dekadentzia finkatzeko faktoreetariko bat krisi sakonean sartzeko. Espainia, bere aldetik, industrializazio fasea jaso ostean

berrikuntzak egin zituen komunikazio esparruan. Adibidetzat ikusi dezakegu 1883ko liberal izaera zuen inprenta eta prentsa legea, egunkariak elementu grafikoak barneratzen hasiko dira, argitaletxe handien agerpenak eta bereziki joera politiko eta ideologikoa zuen prentsa. Egunkari kontserbadore, liberal, absolutu, katolikoak, errepublikarrak, nazionalistak agertzen joango ziren Espainiaren komunikazio testuinguruan, baina iruzkina dela eta, garrantzia eman behar diogu joera sentsazionalista zuten gertakariei. Kasu honetan, Funcarraleko hilketa eta independentzia gerra.

Urte horietan, prentsa nazionalista aztoratzailearen irudiak garrantzia hartzen joan zen eta ikuspegi zentralista batetik horrek Espainiaren gaixotasunaren faktoreetariko bat izan zen. Horrekin batera, langile mugimendua sartu beharra zegoen.

Lehen adierazi bezala, AEBtako prentsak eragina izan zuen Espainiaren dekadentzian eta horren adibide argiena Hearstek bideratutako albisteak izan ziren. Hiru albiste esanguratsu aurkitu ziren Kubarekin gerra pizteko. Clemencia Arangore eta haren ustezko bahiketaren albisteak, Evangelina Cisneros eta espetxeratzeareen albisteak eta USS Maine itsasontziaren hondoratzearen albisteak. Guzti hauek, Espainiaren irudi negatiboa adierazi nahian, espekulazioz eta manipulazioz beteta egon ziren, gerra hasteko helbura zuelako Hearstek.

Azkenean, AEBk lortu zuen gerra piztea eta horrek ekarri zuen Kubaren independentzia eta Espainiaren dekadentzia. Horrexegatik, Puck ateratako ale hau testuinguruari erreparatuta izugarritzko garrantzia izan zuen. Batetik, gerra amaiatu osteko irudi bat delako, eta, bestetik, ikusi egin zelako Ipar Ameriketako influentzia maila, prentsaren munduko erreferente izanez.

## **5 GAIA PULITZER vs HEARST Sentsazionalismoa eta Kubako Independentzia gerra**

Jarraian ikusten ari garen irudi hau The New York Journal 1898. urtean ateratako ilustrazioa da. Irudia prentsa popularraren urrezko aroan kokatua dago, horren adibide daude bi pertsonaiak, Pulitzer eta Hearst, aro horretako kazetari famatuenetarikoak. Publikatutako urteak argi uzten du Kubako Independentzia gerra garaian murgilduta dagoela egoera hau eta baita ere bi kazetariak bizi izan zuten enfrontamendua.

80 eta 90. hamarkadak Ameriketako Estatu Batuetan oso adierazgarriak izan ziren prentsan, munduan erreferenteak izan arte. Hazkunde demografikoa eman zen, nekazla guneetatik hiritara emigratu zuelako bizatnleriak eta horrek eragin zuen soldatapeko bizimodua eratzea. Masa komunikazioaren eskutik kazetaritzak negozio balorea hartzen joan zen eta agentziak, ofizinak, erredakzioak... sortzen hasi ziren. Emakumea agertzen hasi zen lan sektore honetan eta prentsa popularraren urrezko aroa zela eta bi ideietan oinarritzen ziren kazetari hauek, bidegabekeriak salatzeari eta gizartea hobetzeari. Horren arira, inpaktu handiena lortu zuten lehenengo kazetariak Pulitzer eta Hearst izan ziren, XIX. mendeko prentsa popularraren erreferenteak izanez.

Iruzkitzen ari garen ilustrazioaren ezkerrean dagoena Pulitzer dago. Hungarian jaio zen eta Sezesio Gerran parte hartu ostean, 1867an kazetaritza lanekin hasi zen AEBn. Estilo berri bat garatu egin zuen eta 1883an New York World egunkariak izandako arrakastaren

eragilea izan zen. Publikoarekin harremanetan jartzen zen, marrazkilari eta ilustratzaile finak zituen, formatu deigarriak jorratzen zituen eta bai sentsazionalismoa eta konpromisoa ordezkatzeko zituen. Prostituzioaren, benefizentziaren eta ustelkeriaren kontra zioan Pulitzer. Sentsazionalista izan arren eta gertakariak probokatu arren, ez zuen ezer asmatzen. Extra umeak erabiltzen lehenetariko kazetaria izan zen eta autopromozioa eta publizitatean aditua zen. Esan beharra dago Pulitzer bigarren belaunaldian izan zuela berebiziko ikusgarritasuna.

Hearst, berriz, irudiaren eskuinaldean dagoena, nahiz eta urrezko aroaren parte izan Pulitzerren atzetik etorri zen. Hirugarren belaunaldian aurkitzen zen bereziki kazetari honek egindakoa. San Francisco Examiner egunkariaren zuzendaritzarekin ekin zion kazetaritzari baina urte batzuk geroxeago 1895ean, The New York Journal bilakatu zuen. Titulu deigarriak, sentsazionalista, oldarkorra, manipulatuzailea, espekulazioak... jorratzen zituen bereziki. Haren helburua zorrotan dirua sartzeko zen eta ahalik eta botere handiena eskuratzea. Horretarako, Pulitzerri margolariak lapurtzen hasi zitzaion, eta publikoa lapurtzea zuen helburu baita ere. Desinformazioan, espekulazioan oso trebea zen eta gainera ideologikoki Hearst arrazista, inperialista, kontserbakorra zen. Politika munduan sartzen saiatu zen baina ez zuen arrakasta handirik izan. Prentsa horiaren erreferenteetariko bat izan zela esan daiteke, sentsazionalismoz jorratutako prentsa.

Nahiz eta prentsaren aro famatuena elkarren artean sustatu eta ofizio berdina izan, bi pertsona ezberdin ziren Pulitzer eta Hearst. Lehenengoak egiarekiko errespetua zuen eta kazetaritza formatu berri honen aita zela kontsideratzen zen. Bigarrenak, berriz, bere borondatea saltzea zuen helburu eta horretarako edozer gauza egiteko kapazitatea zuen. Prentsa horian murgilduta zegoen eta.

Hearstek bideratzen zuen kazetaritza mundua izan zen 1898. urtean Kubako Independentzia gerra hastearen faktoreetariko bat. Oso zorrotz jokatzeko hasi zen egoera delikatu horretan eta diru gehiago irabazteko helburuarekin hainbat albiste eta gertakari manipulatu egin zituen gerra hastearekin eta Espainiaren irudi dekadentea goraiatzearekin.

Garai horretan Espainia oso baldintzatuta egon zen Kubako independentziagatik. Penintsulako irakurleen gogoak berotu eta espainiaren porrot militarrei muzin egin zioten. Gainera, lehen aipatu bezala, AEBko prentsa sentsazionalistak lagundu egindako gerraren aldeko iritzia orokortzen eta Espainiaren irudi dekadentea nazioartera zabaltzen eta finkatzen. Horren adibide daude Hearstek urte horietan publikatutako hiru albiste hauek: Clemencia Arangorena, Evnagelina Cisnerosena eta USS Maine itsasontziarena.

Irudiak erakusten duen bezala, Pulitzer eta Hearsten enfrentamendua esparru guztietan izan zuen efektua eta Kubako Independentzia gerra bidetik agertu zen. Biek haien ideia eta baloreak jarrituta eta defendatuta gerra piztearen eta abolitzearen arazoa izan zuten. Azkenean, historiak kontatzen duen moduan, Hearstek gerra piztea lortu zuen aurretik aipatutako albisteeak helaraziz.

The New York Journalek publikatutako irudi hau garrantzia izan zuen bere garaian Kubako independentzia gerrarekin lotua zegoen eta. Prentsaren urrezko aroan aurkitu ziren bi

kazetari esaguratsueni egiten zaie erreferentzia eta horrek kazetaritza munduaren historia aldatu zuen. Gainera, aipatu beharra dago egunkari hau, haren zuzendariaren bidez, Espainiaren irudi dekadentea goraiatu eta gerra hastearen faktore garrantzitsuenetarikoa dela esan behar da. Horrexegatik, irudi honek 1898. urtean garrantzi handia izan zuen.

## JUDGE IRUZKINE

Aurrean dugun irudi hau 1898an Judge aldizkari estatuabatuar satirikoak publikatutako ale baten azaleko ilustrazioa da. Irudian tximino basati bat aurkitu daiteke Espainiako herrialdea pertsonifikatuz eta haren inguruan AEBtako soldaduak lurrean hilik botata. Testuinguru historikoaren arabera argi eta garbi esan daiteke Kubako independentzia gerraren testuinguruan aurkitzen garela non, gero azalduko denez, Estatu Batuen, Kuba eta Espainia arteko gerra izan zen. Judgeko ilustratzaileak, aldizkariari men eginez, satira eta burla erabiltzen dute irudi honen bidez Espainiaren morala suntzitzeko, hori izan zen eta haien helburua gerran zehar.

Sezezio gerraren eta bigarren industria iraultzaren ondorioz, masen mugimendua ikaragarria izan zen Ipar Ameriketara. Nekazal guneeetatik hirietara emigratzen hasi ziren eta horrek soldatapeko lan-postuak eta enpresen hazkundea ekarri zuen. Tranbide sareak, inprenta hobekuntzak, zinema eta irratia agerpenak... hobekuntza zientifiko eta teknologikoek ekarri zuten prentsa hobetzen joatea eta premiazkoa bihurtzea, AEB munduko erreferente bihurtuz.

Kazetaritzak negozio itxura hartzen joan zen eta erredakzio handien eraikuntzak, ofizinak, lan taldeak eta emakumeen agerpena izan ziren lan sektore honek hazkundea lortzeko faktoreetariko batzuk. Honen ondorioz, 80 eta 90. hamarkadak prentsa popularraren urrezko aroa bilakatu ziren, eta Pulitzer eta Hearst ditugu garaiko kazetari xelebreenetarikoak.

Azkar azalduta, Pulitzer 1883. urtean NY World egukaria erosi eta nabarmentasun publiko izugarria eman zion. Bidegabekeriak salatzea eta gizartea hobetzea ziren haren bi helbururik garrantzitsuenak eta haren estiloari buruz hitz egiterakoan titulu erakargarriak, sensazionalismoa eta konpromisoa orekatzen zuen eta publikoarekin zabalkundea zuela esan daiteke. Ustelkeria, prostituzioa eta kanpo benefizentziaren aurka jartzen zen eta albisterik ez zituenean probokatu egiten zituen, beti ere egiazkoak izanda.

Hearst, bestetik, 90. hamarkadan izan zuen haren arrakasta handiena. 1895ean New York Journal bideratzen zuen eta espekulazioa, manipulazioa, titulu deigarriak, faltsuzko informazioa garatzen zituen; garai horretan ezagutzen den kazetaritza horia bideratuz. Haren helburua dirua irabaztea zen eta bereziki Pulitzerren gaintik gelditzea, horren adibide dago bai kazetari zein marrazkilariak "lapurtu egin zizkiola". Oso konfliktiboa zen Hearst eta Independentzia gerra sustatzeko faktore handienetariko bat izan zen.

Espanian, kazetaritza sensazionalista ez zen hainbeste jorratzen, eredu edo joera politikoa eta grafikoa zuen prentsa zuen eragin handiagoa garai hartan. Testuinguru horretan



Espainiara industralizazio prozesua apur bat beranduago heldu zen baina eraginkortasuna izan zuen hobekuntza teknologikoak, mekanikoak eta zientifikoak ekarri zituelako. Horrek eragina izan zuen prentsa arloan eta adibide argi bat izan zen 1883. urtean Sagastak ateratako prentsa legea.

Garai horretan, joera politikoa zuen prentsa lantzen zen nagusiki. Berrezarkuntza garaia zela eta, egunkari kontserbakorrak, liberalak, nazionalistak, karlistak, monarkikoak, errepublikarrak... aurkitzen ziren. Argitaletxe nagusiak agertzen joan ziren eta aldizkari grafikoen presentzia nabaria izan zen baita ere.

Sentzasionalistatzat, Funcarral kaleko hilketa eta Kubako independentzia gerra aurkitzen zen Espainian. AEBn, bestetik, jendeak gehien irakurtzen zuen prentsa Hearsten prentsa horia zen eta urte horietan oso garrantzitsua izan zen Espainiari gerra deklarazioa egin zitzaiolako. Bestetik, espainiako joera nazioanalista zuten egunkariak inpaktua izan zuten egoera honetan eta enpresa egunkari handiek (El Heraldo de Madrid, adibidez) klima nazional jakin bat sortzen eta puzten lagundu zuten, kolpe morala sakonagoa izaten lagunduz.

Estatu Batuetako prentsak lagundu egin zuen Espainiaren irudi dekadentea nazioartean erakusten eta Kubarekin gerra izateko faktore garrantzitsuetariko bat izan izan zen. Munduko erreferente zen AEBko prentsak proiektatu zuen Kubari buruzko egoerak lagundu zuen Espainiako irudia jeisten eta horren ondorioz krisi sakona eragiten.

Lehen aipatu bezala, Hearsten prentsa horiak izugarritzko inpaktua izan zuen egoera honetan Espainiaren aurkako hainbat albiste publikatu zituelako, gerra hasteko helburuarekin. Horren adibide aurki daitezke Clemencia Arango eta ustezko espiotzaren albistea, Evangelina Cisneros eta ihesaldiaren abistea eta USS Maine itsasontziaren hondoratzearen albistea. Guzti hauek manipulazioaz eta espekulazioz jorratutako albisteak izanda.

Adierazi beharra dago, Hearstek Kuban zituen korresponentsal ugariak gerra hasteko indiziorik ez zegoela adierazi zuten baina The New York Journalek ateratzen zituen albisteak masetan izugarritzko inpaktua zuten, ez zitzairen kazetari horiei kasu handirik egin. Aipatzeko dago Hearstek botatako esaldi esanguratsu bat: "Zuk ekarri izazkidazu argazkiak, eta nik emango dizut gerra".

Judge aldizkari satirikoak 1898an publikatutako ilustrazio honek testuinguru historikoari begira benetako garrantzia du prentsa popularraren urrezko aroan gertatutako gertakari handi bat errepresentatzen duelako eta bereziki independentzia gerran bukatu eta Espainiako herrialdearen krisiaren sortzailetariko bat izan zelako. Egoera honek, nola ez inpaktua izan zuen bai AEBren hurrengo urteetan, Espainiaren hurrengo urteetan, historikoki begiratuta, eta bien komunikazio esparruan.

## **5. GAIA USS MAINE**

Aurkitu dezakegun egunkari azal hau 1898ko otsailaren 17an New York Journal egunkariak ateratakoa da. Historikoki, prentsa popularraren urrezko aroaren barruan testuinguratuta aurkitu daiteke azala, bereziki, Hearstek bideratutako hirugarren belaunaldian. Izaera informatiboa du egunkari bat delako eta publikoa gainera, herritar guztiei gertakariaren berri eman nahi dutelako. Egile zehatza nahiz eta ez ezagutu, kazetari bat izan zelako, William R Hearsten izendapean argitaratzen dira NY Journaleko egunkariak, hura baizen zuzendaria.

Azalaren xedea da, deskriptiboki begiratuta, USS Maine itsasontziaren gertakariaren berri ematea eta horren ondorioz erruduna harrapatzea zen. Hori zen Hearstek, haren egunkariaren bitartez, bilatu nahi zuena; zirrara, morboa. Eta hori eskuratzeko edozein trikimailu erabiltzen zuen.

1895-1898 urte garrantzitsuak izan ziren Estatu Batuetan, Espainian eta Kubako herrialdetan. Kubako independentzia gerra aurkitzen dugu garai historiko honetan eta hiru herrialde hauek inplikatuak egon ziren.

Espainiaren kasuan, prentsa nazionalismo asaldatuaren bozeramaile eta aztoratzailea izan zen. Egunkari nagusiek balore espiritualen goraipena egiten zuten. Egunkari handienak El Imparcial eta Heraldo de Madrid ziren eta klima emozionala eraikitzen lagundu zuten, jasoko zuen porrot militarra eta horrek ekarriko zuen kolpe morala sakonagoa izatea lagunduz.

Estatu Batuetako prentsak lagundu egin zuen Espainiaren irudi dekadentea nazioartera zabaltzen eta finkatzen. AEBren prentsak inpaktu izugarria hartu zuen XIX.mendearen bigarren erdialdean masa hedabideen belaunaldi handia sortuz. Sezesio gerraren eraginez, masei zuzendutako prentsak izugarritzko garapena izan zuen eta premiazkoa bihurtuko zen, erreferentzia izanez. Urte horietan kazetaritzak negozio izaera hartuko zuen eta haren funtzio berriak bidegabekeriak salatzea eta gizartea hobetzea izango zen. Testuinguru honetan agertuko dira Pulitzer eta Hearst kazetariak.

Lehen aipatu bezala, Hearst bideratu zuen gehienbat Estatu Batuek Espainiaren aurkako irudi dekadentearen sorrera eramatea. Hearstek titulu deigarriak, espekulazioak, sensazionalismoa, oldarkortasuna, editorial iraintzuak lantzen zituen haren egunkarietan eta egoera hori islatuta utzi zuen Kubako independentzia gerrarekin.

Munduko erreferente izan zen Ipar Amerikako prentsak proiektatu zuen Kubari buruzko egoerak lagundu zuen espainiarren irudi dekadentea eta maltzurra eraikitzen eta nazioartean konsolidatzen, honek eragin zuen Espainia krisi egoera batean sartzea.

Hearstek bihotzik gabeko prentsa horiaren kontsolidazioa ekarri zuen eskanduluz beteta eta gezurrak publikatuz. Adibide argienak hiru albiste hauek izanda: Clemencia Arangoren ustezko espioitza, Evangelina Cisnerosen ihesaldia eta New York Journalen agertzen den USS Maine itsasontziaren hondoratzea. Notizia honek gerra deklarazioa ekarri zuela esaten da non Hearstek adierazi zuen tropa espainola batek itsasontziari eraso egin ziola, baina egoera aztertuta gezurra zela ikusi zen. Nahiz eta gezurra izan, gerra hasteko aitzakia bilakatu zen.

Kuban zeuden korrespontsal batzuk gerra ez zegoela adierazi egin zuten baina Hearstek isilarazi zituen eta ez zuten oihartzun nabarmenik izan. Hearsten esaldi esanguratsu bat atera zen egoera honetatik esaten zuena “zuk ekarri iezadau argazkiak eta nik gerra emango dizut”.

1898ko otsaiaren 17an New York Journalek ateratako azal honek historiarekiko garrantzia izan du Kubako independentzia gerraren sortzailetariko bat izan zelako, Espainiaren dekadentzia bideratu zuelako eta Estatu Batuetako prentsa sentazioanalistak geroz eta indar handiagoa hartzen joan zelako masen hedabideen belaunaldi horretan, 80 eta 90. hamarkadak prentsa popularraren urrezko aroak bilakatu.



Alemaniko gobernu naziak bi mundu gerren artean (1914-1918/1939-1945) ateratako kartel honek erakusten du nola jendea bozgorailu erraldoi batek esaten duenari adi daudela. Kartel honek adierazten du "Alemania guztiak entzuten du Fuhrer-aren ahotsa Volpsefangerekin" hitzekin Naziek garai horretan izan zuten helburua, alemaniar bakoitzak irratia izatea Hitlerren ahotsa entzuteko. Esan beharra dago, Naziek erabilpen anitza eman ziotela irratitari, bai boterera heltzeko eta han mantentzeko ezinbestekoa izan zelako.

Lehen mundu gerra ez arrakastatsu baten ostean, non galtzeak atal armamentistikoan eta komunikazioan garatu ziren, kazetarien eta militarren arteko koordinazioa txarra zela eta, atzera pauso izugarria izan zuen Alemaniak 1918. urtean, dekadentziara helduz. Komunikazio arloan beti Britainia Handia eta AEBren atzetik aritu ziren eta horrek porrota ekarri zuen faktoreetariko bat izan zen.

Egoera honen aurrean, Alemaniako biztanleriak esperantzak galdu zituen momentuan zegoen gobernuarekin eta ezegonkortasun politikoa hasi egin zen. Alemaniaren nahia edo beharra, momentu horietan, lider baten agerpena zen eta.

Kontestu horretan agertu egin zen Adolf Hitler, eta harekin Nazien alderdia. Komunikazio arloan oso trebeak izan ziren XX.mendeko lehen erdialdean jorratu ziren hedabideak aprobetxatuz eta haiek eraman zituzten Naziei boterera, eta boterean mantentzea. Nazionalismo eta sozialismoaren ideiak deuseztatzen zituzten eta garrantzi ugariagoa ematen zioten nazio/herriari, eta haien interesei, bakoitzaren interesei baino. Gainera, biologia faktoreak garrantzitsuak ziren Nazientzat non pena merezi zuen arraza bakarra arioa zela esaten zuten eta bestelakoak azpitik zeuden. Horrekin batera bai emakumearen zein gizonaren irudia markatu zuten eta baita ere familia tradizional eta kontserbakorren ideologia goraiatzeko zuten.

Masen irrazionaltasunaren teoriari eutsi zioten asko Naziek, eta horren adibide aurkitu ziren diskurtsoak. Diskurtso luze, arrazionalak eta abstraktuak alde batera uzten zituzten eta haien helburua zen jendearen sentipenetara eta emozioetara heltzea "ir al grano" kontzeptua erabilita. Diskurtsoak ematerako orduan oso trebea izan zen Hitler, hitz egiteko era eta gorputzaren hizkuntza, keinuak, esan behar zuena... oso ondo prestatu egiten zuten. Esan daiteke, pertsuatazaile ona zela, eta hori izan zen haren arrakastaren faktoreetariko bat.

Propagandaren arloan, Joseph Goebbelen arrakasta eduki zuen haren sinpletasuna, errepikapenengatik eta kutsatze teknikak norbanakoa masan disolbatu zedin. Baita ere, emozioetara jo nahi zuen propaganda bat eratu zuen. Masen irrazionaltasun kontzeptua bi ikuspuntutatik jorratu zuten Naziek, batetik, liderrarekiko gorespenean eta handitasunean zentratu ziren, besteak baino hobeagoa zela adieraziz. Eta, bestetik, etsaiarekiko gorrotoan. Komunista, ijitoar, judutar, ezgaituar, homosexualtar... komunitateen aurkako gorrotoa sustatzen zuten.


Hedabideei begira, prentsak ez zuen aurreko urteetan izandako garrantzia izan, baina komunistak eta sozialdemokratikoak ziren egunkariak itxi egin zituzten. Horrek garrantzia eta

kompetentzia eza eman zion garaiko egunkari eta aldizkari naziei (Völkischer Beobachter "Herriko behatzailea", Illustrierter Beobachter eta Der Stürmer).

Irratiak, kartelean ikusi dezakegun bezala, izugarritzko inpaktua izan zuen biztanleria alemaniarren artean, alemaniar guztietara heltzen zelako transitorie merkeei esker. Gainera, irradiak zentzu politikoa hartu zuen Hitlerrek berak bideratzen zuen irradi katearen ondorioz (Volksempfänger edo Herriaren Irratia, 1933). Horrekin bat hasi ziren bozgorailuak edozein puntutan ezartzen, kartelak adierazten duen bezala, denek Hitlerren ahotsa entzun zezaten.

Hedabideetan kontrol zorrotza jorratu zen. Irratian, adibidez, abesti herrikoiak eta Alemaniarrak jarri zitekeen beste komunitate guztiak suntzituz edo abolituz. Zinemak baita ere, inpaktua izan zuen komunitate Naziaren artean, Leni Riefenstahl-en eskutik. Masen bihotzetara heltzeko teknika paregabea izan zen zinema baina, garai horretan normala zenez, kontrol oso zorrotza zegoen eta horrek araudi batzuk ekarri zituen: Aurretiko zentzura ezarri zuen, sortzaile guztiak arraza ariokoak izan zitezeten agindu zen eta produkzioek balore eta espiritu nazia erakutsi behar zituzten. Riefenstahlek produzitutako Borondatearen garaipena eta Olympia filmek inpaktu handia izan zuten garai horretan zehar.

Alemaniko gobernu Naziak, bi mundu gerren artean hedabideetan eta, kasu honetan, propaganda eta irradi arloan izan zuen arrakastaren ondoriozko kartel honek testuinguru historikoari erreparatuz garrantzi nabarmena izan du. Horrelako kartelak izan ziren Nazien handitasuna goraiatu edo altzatu zuten faktoreetariko bat eta, denok dakigunez, horrek historia aldatu zuen. Horrexegatik esan beharra dago garaiko kartel naziek inpaktu izugarria izan dutela historian zehar.



*Destroy this mad brute* irudi hau 1917an Estatu Batuetako gobernuak publikatu zuen kartela da. Garai horretan irradi eta zinemaren agerpenarekin batera, propagandak eta kartel zerbitzuek indarra hartu zuten, bereziki gerra garaian, eta hona hemen adibideetako bat.

Irudi honetan tximino baten antzera irudikatzen dute Alemania, dakigunez AEB haren kontra zegoelako Lehen Mundu Gerra garaian. Horrekin batera emakume bat eskuetan duela ikusi daiteke, seguruenik emakume hori New Yorkeko askatasun emakumea dela esan daiteke eta beste eskuan “kultur” idatzita duen bate bat. Buruan militarism jartzen duen kasko bat darama adieraziz gerra soldadu bat dela eta azkenik aipatu beharra dago “Destroy this mad brute” hitzak.

Hitz horiek adierazten dute tximino zoro horrekin akabatu behar dela, hau da, kartelen metafora eta sinbologia erabilia, Amerikako Estatu Batuak haren biztanleriari deitzen ari zaio alistatzeko helburuarekin eta herria, gerran zehar, lagundu dezaten. Helburua Alemaniarekin akabatzea da eta argi ikusi daiteke hori dela AEBko gobernuak, kartela sortu zuenean, izan zuen helburua.

Mundu gerrak (Lehena 1914-1918 eta bigarrena 1939-1945) eta komunikazioa erlazio sakona izan zuten urteetan zehar eta aipatzeko dago limurtze eta propaganda tekniken garapena. Aurreko garaiko prentsa sentsazionalistak, publizitate komertzialak eta ikerketa akademiko eta zientifikoen garapena eragina izan zuen propagandan. Gainera, prentsak etsaitasun-giroa sortaraztea ekarri zuen Lehen Mundu gerran aritu ziren herrialdeen artean eta esan daiteke gerra hasteko faktoreetariko bat izan zela.

Komunikazio masiboa erabiltzeko beharra ematen hasi zen non mugimendu bakezaleen indarrean, langile mugimenduaren mezuetan, gerraren luzeera eta gogortasunean eta gerraren globalizazioan eragina izan zuen eta horrek ekarri zuena izan zen armarik gabeko gerraren protagonismoa handitzea.

Armarik gabeko gerraren protagonismo horren barruan gerra psikologikoaren garrantzia aipatu beharra dago, gerra luzatzen joan zen neurrian desgaste gerra batean bilakatu zen non helburua ez zen zure herriaren handitasuna publikatzea baizik eta etsaia birrintzea.

Britainia Handiak trebetasun handia izan zuen kartel eta propaganda munduan. Idazle eta kazetari bikainen kolaborazioa zuen eta bai gerra dokumentalak, liburuak eta diskurtsoak helarazten zituzten. Propagandaren domeinu aparta zuten ez zutelako gezurrik esaten, ideiak baino gertakariak erabiltzen zituztelako, mezu kontraesankorrak saihesten zituztelako...


Barne propaganda honetan, errekrutatze ideiek protagonismo handia hartzen joan ziren eta kartelak (gaur aztertzen ari garena bezala) patriotismoari, inbasio baten beldurrari eta etsaien ankerkeriei egiten zioten erreferentzia.

Alemania, berriz, atzetik ibili zen. Kazetari eta militarren arteko koordinazio txarra eman zen eta mezu ezkorretan zentratzen ziren, askotan kontrakoen atzetik. Horretan erreflejatuta ikusi zen alemaniaren porrota, bai guda zelaian eta komunikazio eremuan.

Estatu Batuetan 1917-1919 urteen bitartean gerraren aldeko jarrera zabaldu zuten kanpainak sortu zituzten, adibidetariko bat "Destoy this mad brute" izanda. Lippman eta Bernays lan oso eraginkorra egin zuten esparru horretan eta Kreel Batzordearen lanari jarraituz posterrak sortu zituzten. AEB limurtze teknikan trebea zen gerra garai horretan.

Honen arira herrialde neutralak konbentzitu nahi izan zituzten, herritarren eta tropen moralala altxatzea bilatzen zuten kartel, argazki, prentsaren bidez eta lehen aipatu bezala, etsaiaren moralala suntzitzea zuten helburu.

Estatu Batuetako gobernuak 1917an *Destroy this mad brute* deituriko kartel honek garrantzia izan zuen Lehen Mundu gerraren garai historikoan eragina izan zuelako 1918an eman zen Alemaniaren porrotarekin. Kartel hauekin helburua zen jendea errekrutatzea eta horren ondorioz, etsaiarekin akabatzea. Horrexegatik, esan beharra dago kartel mota hauek garrantzitsuak izan zirela gerra irabazteko lehen pausoa izan zirelako.



Britainia Handiko gobernuak 1914ean ateratako kartel honek erakusten du Lehen Mundu gerra garaian Alemaniarren bonbardeatzearen ondoriozko eraikin txikitu baten hondakinak. Eraikina gizon langile baten etxea zen eta bonbardaketak 78 emakume eta ume erail zituen, horrez gain, 228 zaurituak izan ziren.

Kartelaren intentzioa argia da, militaritzan alistatzeko eskaera egiten dio Britainia Handiko gizonari hurrengo hitzen arabera "Meen of Britain! Will you stand this?". Gobernuak, alistatu ez diren gizonei erakutsi nahi die ea horrelako gertakari bat jasateko intentzioa duten eta ezer egin gabe geldituko diren gerra amaitu arte. Biztanleriaren laguntza eskatzen dute gerrara abiatzeko, bere herrialdearen izenean.

Kartel honetan aipagarritzat ikusi daiteke nola adierazten den gizon langile baten etxea zela, horrek argi uzten du zein den Britainia Handiak duen helburua. Haren helburua da proletarioduna bereganatzea, klase ertainaren beharra duelako gerrara joateko eta gerra irabazteko. Langileen diskurtsoa oso adierazgarria da kontestu honetako kartelean, gerra garaian aurkitzen dira Britaniarrak eta diskurtso honekin gobernuak ez du adierazi nahi gerra soilik burgesentzako dela baizik eta klase sozialak alde batera utziz danoi afektatzen diela gerra. Bai langileei, bai txiroei eta bai burgesi, denak britaniarrak direlako eta denek etsai berdina dutelako, Alemania.



XX. mendeko hasiera honetan, hedabideen loraldia gauzatu egin zen nahiz eta gerra garaia izan. Prentsak, eskusibitate hori galdu zuen eta bigarren maila batera jeitsi behar izan zen. Horrek eragingo zuena izan zen teknika berrien agerpenak jasotzea eta adibide argienak argazkiak eta espezializazioak izango ziren, adibidetako bat Times (1923) egunkari britainiarra izan zen eta.

Kartelek garrantzia hartzen joan ziren garai honetan erabilpen politiko eta komertziala izanez eta garapen tekniko eta artistikoa bereganatuz, horren adibide ona izan ziren Britainiarrak, iruzkintzen ari garen kartela oinarritzat hartuta.

Irratiari dagokionez, elementu garrantzitsua bilakatu zen 20. hamarkadatik aurrera eta gerran zehar erabilpen anitza izan zuen, Roosevelt eta Hitlerrek, adibidez, haien kate propioa zuten. Eta azkenik, zinemaren hedabidea agertu zen, inpaktu masiboa izan zuen bereziki jendearen emozioetara heltzen zelako eta lehenengo ekoiztetxeak 1929tik aurrera agertzen joan ziren.

Propaganda gauzatzeko makineria administratibo handia hasi zen martxan jartzen eta horretarako soziologo, psikologo eta kazetarien laguntza behar izan zen. Honek eragina izan zuen armarik gabeko gerra sustatzen, non puntu horretan hedabideek eta bereziki propagandak, izugarriko garrantzia lortu zuen. Honen helburua, herria goraiatzeaz gain etsaia umiliatzea zen eta urte askotako gerrak eragin zuen desgaste gerra horretan kartelek bere inpaktua izan zuten.

Gainera, kartelak testuinguruaren arabera joera ezberdinak hartu zituzten. Lehenengo mundu gerran emakumeak gizonak joateko beharra erakusten zuten eta bigarrean, berriz, emakumeak deitzen zituzten lan egitera.

Masen irrazionaltasunean zentratzen ez ziren diskurtso luze, abstraktu eta arrazionalak alde batera utziz eta jendearen emozioetara heltzeko helburuarekin gertakari eta situazio puntaletara jotzen zuten, hau da, "al grano" joaten ziren.

Britainian idazle eta kazetari trebeak aritu ziren garai horretan kartelgintza munduan eta kalitatezko propaganda lortu egin zuten gezurrak ez zituztelako esaten, mezu kontraesankorrak baztertzeko zituztelako eta gertakariak bilatzen zituztelako (adibide oso argia aurkitzen dugu kartel honekin, gertakari batean zentratzen delako). Kartelgintza barruan erreklutatze paperak garrantzia hartzen joan zen gerra urte horietan zehar patriotsimoaren, inbasio baten beldurraren eta etsaien ankerkeriari erreferentzia eginez.

Honekin bat, 1914ean sortutako ekimen pribatua zuen erakunde bat atera zen Britainian "The way of the murder feather" deitua. Kasu honetan, emakumeek gerra joango ez ziren gizonei luma zuri bat jartzen zioten umilizazioa eta patriotismo eza erakutsi nahian.

Lehen aipatu bezala, kartelgintzak hobekuntza tekniko eta artistiko nabariak izan zituen eta Britainia Handiak egoera hori aprobeztatzen jakin zuen. Alemaniaren kasua, berriz, ez zen horrela izan. Atzetik joan ziren beti eta kazetari eta militarren arteko kordinazioa ez zen hoberena izan eta horrek eragina izan zuen Alemaniarrengan.

Aipatu beharra dago propaganda mundu honetan AEBren Creel konferentziak izan zuen inpaktua. Bernays eta Lippman pertsonaiek posterrak, kartelak, filmazioak eta abestiak osatu zituzten. Limurtze teknikan oso trebeak ziren eta adibidetzat hartu daitezke "Destroy this mad brute" edo "The Kaiser: The beast of Berlin" kartel amerikarrak.

Britainia Handiarentzat, bereziki Lehen Mundu gerran zehar, kartelak eta propagandak klase ertainean murgilduta zegoen jende kantitate izugarria mugitu zuen eta hori izan zen gerra irabazteko kausetariko bat.

Horrexegatik, aurreko paragrafoaren arira, 1914ean Britainia Handiko gobernuak ateratako erreklutatzeari buruzko kartel honek garai historikoarekin izugarrizko garrantzia izan zuen, batetik, Lehen Mundu gerra garaia publikatu zelako eta, bestetik, kartelgintza eta propaganda britaniar hedabidearen trebetasunak Alemaniaren porrota, eta aldi berean, Britainia Handiaren garaipena ekarri zuelako.



Aurrean dugun kartela 1936-1938 urteen bitartean Ameriketako Estatu Batuetan bideratu zen kanpaina bati deritzo. National Association of Manufacturers izenaz ezagutzen zen kanpaina hau bi gerren arteko testuinguruan kokatu beharra dago.

Garai horretan, AEBn, ideia argi bat jorratzen hasi zen, demokrazia berri baten beharra eskatzen zen, baina kasu honetan negozio pribatuarekin erlazioa zitekeen demokrazia kontzeptu berri bat. Horretarako enpresak bitartekari elementu funtsezko agertu ziren eta kontsumismoaren ideia goraiatzeko hasi zen.

Enpresak izango ziren jendearen beharrak aseko zituztenak eta horretarako hiritar aktiboa alde batera utzi eta kontsumitzaile pasiboa eskatzen hasi ziren kanpaina honen bitartez. Guzti hau eskatu egiten zen masen demokrazia batean ordena soziala mantentzeko helburua zegoelako. Gerra arteko garai honetan, gainera, AEBtan kapitalismoaren eta kontsumismoaren joera indarra hartzen joan zen.

1920. hamarkadak joera baikorra izan zuen Estatu Batuetan kontsumismoaren hazkundearekin eta horren adibide dugu iruzkintzen ari garen National Assosiation of Manufactures kanpainia. Pentsamendu aldaketak jorratzen hasi ziren plazerra bilatzeko helburuarekin eta mugimendu hauek erakutsi nahi izan zuten kontsumitzeko desira eta horrek eragiten zuen plazerra ona zela. Garaiko propagandistek eragin nahi izan zuten pertsonak materialismoarekiko eta kontsumoarekiko beharra eta horrek zoriontsu bilakatuko zituela.

Edward Bernays (1891-1995) pertsonaiak inpaktu handia izan zuen gerren arteko AEBtako testuinguruan eta propaganda arloan. Creel batzordean, Lippmanekin batera, aritu ostean, propaganda eta publizitate esparruan barneki sartu zen. Bernaysek tabakismoa eta emakumearen figura harremandu zituen lehen pertsona izan zen.

Garai horretan tabakismoa soilik maskulinitatearekin lotua zegoen eta erretzen zuen emakumea ikustea okertasuna sortzen zuen. Bernaysek, tabakoaren publizitateari bira bat emateko helburuarekin, eta erregela hauek apurtu nahian 1929. urtean, New York-en, "Askatasun Argi zuziak" desfilea sortu zuen. Bertan, emakume glamorosoak desfilatzen atera zituen, erretzen zeuden bitartean, eta berak kontratatutako argazkilari batzuen bidez berria izugarritzko inpaktua eta shock-a izan zuen.

Baina, 1929ko New Yorkeko burtsaren krisiak eta Roosevelten presidentziak Bernaysen planak arriskuan jarri zituen. Presidenteak New Deala atera zuen merkatuaren gehiegikeriak ekiditeko asmoarekin eta hori ekarri zuena izan zen enpresen kontrako erantzuna. Tetsuinguru horretan agertu zen National Assosiation of Manufactures kanpainia eta horren ondorioz, iruzkintzen ari garen kartela.

Lehen aipatu bezala, joera kontsumistaren eta kapitalismoaren ideia aurrera eramanda demokrazia berri baten kontzeptua goraiatu nahi izan zuten negozio pribatuak, enpresak eta demokraziaren erlazioa lortzeko.

1936-1938 urteen bitartean agertu zen kanpainia honetako (National Assosiation of Manufactures) kartelak testuinguru historikoari begira garrantzi nabarmena izan zuen. Bi mundu gerren arteko epealdi honetan, kanpainak eragindako inpaktuaren ondorioz ikusi egin zen Ameriketako Estatu Batuak zernolako bide ideologikoa jarraitu nahi izan eta horren ondorioz, eragina izan zuen hurrengo urteetan, II Mundu Gerra eta XX. mendeko bigarren erdialdeko epealdiak adibidetzat jarritz.